18
ZRV
3243

FUNDACIÓN
SANCHO EL SABIO
FUNDAZIOA

H. 26246 / R-40609 ATV 21628

# AMOREZCO

ETA

# DOLOREZCO

# JESU-CRISTOREN

# PAUSOAC.

---

TOLOSAN:

Mendizabalen semearen moldizteguian.



# AVISOA.

DEVOCIO ONETAN JESU-Cristorequin hitz eguiteco, soseguz ciñatu. *Nere Jesu-Cristo Jauna*, edo acto contriciozcoa biotzetic eguin, ta batec gucien icenean ofrecimentua esango du modu onetan.

—

# OFRECIMENTUA.

Zorigaiztoan izan ez dedin
Gu jayo guiñan eguna,
Asi gaitean consideratzen
Sobra da galdu deguna.
  Nai ez badegu burlaric eguin
Jesus onaren pausoaz,
Etzi dezagun alde batera
Mundu onetaco gustoaz.
  Bera da bada gure maisua
Bear diogu icasi,
Nolatan eguin eriotzean
Luciferrari iguesi.
  Pasaturic gure jabeac

Humildadean mundua,
Eman cion bere Aitari
Calvarioan contua.
  Naico dezu bear becela
Nola pasatu zan jaquin,
Deseatzen det esplicatzea
Amabost estaciorequin.
  Semea illa cegoalaric
Sepultura santuan,
Ama Virgiñac Jerusalenen
Pauso oyec asi cituan.
  Gueroz ere pasa cituan
Amabost urte munduan,
Eracustearren pauso oyec guri
Nola eguin bear guinituan.
  Ama Seme-en amorioa
Oguei ta amairu urtean,
Trabajuaquin bicitu ciran
Ez gu galdutzeco ustean.

Ama dezagun caridadea
Nequearequin munduan,
Damuric izan nai ez badegu
Eriotzaco orduan.
Jesus justuac Ama orrequin
Costaric gauzcan becela,
Guiatzen gaitu bide onean
Bacoitzac segui dezala.
Devocioaz estacio oyec
Iñoc eguiten baditu,
Irureun da laroguei ta lau
Anima libratzen ditu.
Eguin guenzagun obra da eta
Jornal icaragarria,
Ceiñ izango da falta zaiona
Seguitzeco egarria.
Ga guera Aita pecatariac
Arren beguira Jesusi,
Onen amorez bear ditzagun

Pauso auec bada icasi.
Uniturie gure pobreza
Onen amorio aundia,
Izan bitez pauso oyec bada
Aita beraren glorian.
Aita Santuac concediturie
Daduzcan indul genciac,
Deseo degu irabaztea
Pararic diligenciac.
Indulgenci oyec entrega itzatzu
Ama, Aitaren escuan,
Berac naî duen anima ayec
Sartu ditzala Ceruan.
Unituric bada Aita berorri
Anima oyec contua,
Asitzen guera consideratzen
Cristoren Pasio Santua.
Zure jabeac deitzen dizu
Bere gurutzé santutic,

Pecataria segui zadazu
Bide onetan gogotic.
  Zu gatic emen odol usturic
Llagaquin betea nago,
¿Cer zan posible nic eguitea
Eguin nuan baño gueyago?
  Ez dizut bada oyec paguan
Beste gauzaric escatzen,
Ez nazazula arren paratu
Berriz oncla penatzen.
  Eguindacuaz urruquituric
Jo zadazu atia,
Iriquitzco deseoz nago
Bay arren pecataria.
  Acorda zaitez batayatzean
Eman cenduan hitz arrez,
Nai cenduela renunciatu
Munduaz ta Luciferrez.
  Nun da posible descantzatzea

Daucazun bici moduan.
Ez badaquizu egongo ceran
Bigar goicean munduan.
Penza ezazu eriotzean
Ta asi contuac zucentzen,
Zor gogorraquin arquitzen cera
Gueygui cera fiatzen.
Icusi badaz cer pasatzendan
Zurez confecioaquin,
Ez nazu arren engañatuco
Jarri zaitea cerequin.
Asi zaitea engañatugabe
Instante onez baliatzen,
Nai ez badegu negarrez egon
Infernuetan erretzen.
Uts eguin dezu itzli zaitez,
Ez bigar baicic bereala,
Nai badezu penitencia
Ongui etorri cerala.



LENENGO ESTACIOA.

Lendabicico estacioan
Dolorez urruquituric,
Gonsideratu nola daucagun
Jesus guc afligituric.
Cembat trabaju sufritu zuan
Ostegun Santu gabean,
Ez da posible ezagutzea
Gauden artean lurrean.
Ostiral Santu goicean bada

Assi ciran soldaduac,
Jesus onari tiraca quentzen
Bere jantzi sagraduac.
Pilatos Juezaren echean
Pararic larru gorrian,
Pillareari lotzen diote
Patioaren erdian.
Ecusirican culparic gabe
Jesus esturic onela,
Aguintzen die sei soldaduri
Bereala azota decela.
Aguitz dirade golpeac eta
Biciro berriz aundiac,
Azoteaquin erortzen dira
Jesus onaren araguiac.
Azotatu ta azcatu dute
Ya ilco danaz etzia,
Dibertitzeco jazten diote
Soñeco bat ichusia.

Soldadu ayec aranzac sartzen
Escuac galdu ez ditzen,
Buru santua canibetaquin
Asitzen dira zulatzen.
Aranzaturic buru santua
Biciro modu estuan,
Paraturican falsoa dala
Cañaberabat escuan,
Adoratutzen asitzen zaizca
Jesus onari aurrera.
Andic jequi ta botatzen dute
Bofetadaquin lurrera.
Jesus onela darabiltela
Biciro pena aundian.
Pilatos bera sartutzen zaye
Sosegatzera erdian.
Jesus berequin atera eta,
Gendeai die esaten,
Icus zazute guizon triste au

Norc ez du arren libratzen.
Jesus justua libratutzeco
Pilatosen aleguiñac,
Biciro ciran aundiac baño
Provechu gabe eguiñac.
Bere graduac galdu bildurrac
Eman zuan sentencia,
Causa justua ez zala baño
Quendu cequiotela bicia.
Cale guciac pasa ditzala
Gurutze pisu batequin.
Bere artan josi decela
Eta bi lapur arequin.
Bere escuac garbitzen ditu
Pilatos Jaunac esanaz,
Ceron contura carga zaitezte
Guizon justu orren penaz.
Judu ichuac conseguituric
Onen sentenci cruela,

Milla esquer eman diote
Pilatos orri becela.
Gorputzetic atera eta
Anima baten cargua,
Pecaturic ez eguin arren
Nunda neque oen pagua?
*Cer izango da pecadoreaz*
*O! lance guztiz eztua,*
*O! gustoac ó trabajuac*
*O! gauza istantecoac*
*O Ceruac ó infernuac*
*Secula seculacoac,*
*Damu del Jauna ofendituaz*
*Barca oraindañocoac.*

Pauso bacoitzaren araberan esaten dira atzena dauden bi verso oyec, *Aita gurea Ave-maria eta Gloria*, eta guero, *Bedeincatua*

*eta alabatua izan dedilla Jesusen pasio santua, eta Maria Santisimaren dolore izugarriac. Amen*



BIGARREN ESTACIOA.

Bigarrengo estacioan
Gechit dolorez beteric.
Concideratu nola daucagun
Jesus guc afligituric.
Pauso onetara allegaturic
Jesus justua dolorez,
Soñeco ura quentzen diote

Ongui betea odolez.
Bereala gogor jazten diote
Bere soñeco pobreac,
Obequiro ezagutu dezan
Burlatutzeco gendeac.
Libratu zuten Barrabas baño
Bi lapur ceuden catean,
Laguntzat oyec eman ciseaten
Cijuan bere artean.
Escapatu nai bazun becela
Jesusec oyen artetic,
Soca gogor bat para cioten
Tiratutzeco lepotic.
Gurutze bat onduan ceucaten
Guztiz icaragarria,
Zortzi oin zuen besoa eta
Amabost luse neurria.
Esan cioten gueyago etzezan
Munduan eguin oquerric,

Artzac agudo eramateco
Calvariora bacarric.
Norc icus lezaque Jesus justua
Gurutzearequin lastanca,
Biciro nequez artu du bada
Biscar santuan indarca.
Berez du gucis pisua eta
Dijua afligituric,
Ala ere escu santua
Atzeco aldera esturic.
Eguiten dute judac berriz
Milla bat burla ichusi,
Iltzeaquin ta barrenoaquin
Soñuac joaz Jesusi.
Jes s justua ez bada arren
Carga orrequin erori,
Emen gabiltza pecatariac
Lagundu nayan berorri.
*Cer izangoda etc.*



## IRUGARREN ESTACIOA.

Irugarrengo estacioan
Dolorez urruquituric,
Concideratu nola daucagun
Jesus guc afligituric.
Pauso onetan gure jabea
Lendabicico aldian,
Indarren faltaz erori zagu
Gurutzearen azpian.
Jesus justuaren heridetatic
Saltatu diran odolac,

Causa dirade convertitzeco
Ez baguerade marmolac,
Ecusirican gurutze-petic
Ecin zala jaiquitzen,
Arc gueyago orduan zuten
Golpe crueles eritzen.
  Beguiraturic guztietara
Lagunic etzan aguertzen,
Jesus justuaren odolez berriz
Lurra arizan estaltzen.
  Borrero ayec asi citzaizcan
Tiraca bere illetic,
Ez da pocible esplicatzea
Nola jequi zan lurrtic.
  Nai ezpadezu pecataria
Berriz egotzi lurretic,
Utzi itzatzu pauso gaiztoac
Seguitu bague aurera.
  *Cer izango da etc,*



## LAUGARRN ESTACIOA.

Laugarrengo estacioan
Dolore aundiz beteric,
Gonsideratu nola daucagun
Jesus guc afligituric.
Pauso onetan icusi zuan
Virgiñac Seme justua,
Cijualaric borreroaquin
Soca gogorrez estua.
Ama dolore aundiz betea
Cegoan altu batea;

Seme justua icusinayan
Aimbeste gende-en artean.
Toqui artan aditzen ciran
Guztiz deadar illunac,
Jesus alchatzen cebiltzanean
Borrero ayec eguiñac.
Andican laister aguertu ciran
Armaturic soldaduac,
Cijuacela lecu eguiten
Oyuca guztiz galduac.
Oen ondoren Borreroac
Urbillena bi lapurrez,
Oyen atzean cijoan jesus
Erorico zan bildurrez.
Lenbician Amac etzuen
Ezagututzen Semeric,
Ceramatelaco Jesus justua
Bere figura galduric.
Biotzic ere etzuten baño

Presa cioten ematen,
Batac bestea icusi eta
Hitzic ez dute eguiten.
San Juanec eldutzen cion
Señora oni amorez,
Desmayaturic doloreaquin
Erorico zan bildurrez.
Cein zorrotza zan Ama Semeac
Pasa cituan ezpata,
Ezta posible esplicatzea,
Izanic ere Profeta.
Ecin sufritu icusi gabe
Icusi ta berriz pena,
Penza dezagun nolacoa zan
Pena Señora onena.
*Cer izango da etc.*



## BOSGARREN ESTACIOA.

Bostgarren estacioan
Gucia chit zauriturie,
Arquitzen guera mobitu gabe
Jesusen gana damuturic.
Pauso lastimagarri onetan
Juduac ceuden etziric,
Etzala Jesus allegatuco
Calvariora biciric.
Diruarequin asi ciraden

Gende-en artean galdetzen,
Ya iñorc juan nai zuan
Guizon oni laguntzen.
Cirineoco Simon cetorren
Soroan trabajatzetic,
Esan cioten eldu aquio
Gurutze orri atzetic.
Simon ez balitz an allegatu
Etzan arquitzen guizonic,
Jesus onaren Gurutzeari
Gustoz eldu nai cionic.
Ama Seme-en ordu artaco
Descansuaren paguan,
Glori eder bat gozatzen dago
Simon betico Ceruan.
Ez juduari baicic Simoni
Deitzen digu seguitzeco,
Gure esperanzan bici dirala
Gloria artan artzeco,

Zórioneco amorioa
Gloria digu aguintzen,
Gustoz guc ere seguitutzeco
Gurutze ori arintzen.
*Cer izango da etc.*



SEIGARREN ESTACIOA.

Seigarrengo estacioan
Dolorez urruquituric,
Concideratu nola daucagun
Jesus guc afligituric.
Gurutzeari berac becela

Simonec eldu artean,
Jesus justuac descansuaren
Pensa premiric zuquean.
Beronica Santa lance ontan
Pasa citzayon aurrera,
Zorionean jayo zan ura
Egun batean lurrera.
Chistuz ta loyez beteric ceucan
Jesus onac arpeguia,
Garbitutzeco atera zuan
Oyal bat ongui garbia.
Paraturican iru dobletan
Garbitu cion bereala,
Beronicaren baloreaquin
Guztiac arritzen cirala.
Iru dobletan paratu cion
Bere arpeguiaren figura,
Mundu onetan gozatu cezan
Igo artean Cerura.

Jesus justuac Beronicari
Gobratu cion amorez,
Iñola ecin hitzic esan da
Despeditu zan negarrez.
Descuido gabe eguin dezagun
Guc ere penitencia,
Esaten digu jarriya dala
Gu-gan bera dan guztiya.
*Cer izango da etc.*



ZAZPIGARREN ESTACIOA.

Zazpigarrengo estacioan

Dolorez urruquituric,
Concideratu nola daucagun
Jesus guc afligituric.
Pauso onetan nola cijuan
Biciro gueldi penatzen,
Judu cruelac arrabiaturic
Presa cioten ematen.
Jerusalengo despedidan
Portalearen erdian,
Auspez lurrera erori zan
Bigarrengo aldian.
Oraindican arren etzera
Pecataria mudatzen,
Cer causa gatic Jesus daucazu
Gurutzepean penatzen.
Jaiqui cedilla borrero ayec
Cruelqui zuten eritzen,
Ta Jesus maitia barcatutzeco
Aitari ari zan deitzen.

Negarrez gora beguiraturic
Onela dio esaten,
Ciudade au galdu bearrac
Aita, guztiz nau penatzen.
Anai justua iguzu arren
Amoriosco biotza,
Barca diegun gueren etzayal
Balitz ere eriotza.
Aspaldietan bici cerana
Progimoarequin osturic,
Zabal guiozu ongui biotza
Sentimentuac azturic.
*Cer izango da etc*



## ZORTZIGARREN ESTACIOA.

Zortzigarrengo estacioan
Dolorez urruquituric,
Concideratu nola daucagun
Jesus guc afligituric.
Pauso onetan hitz eguin cien
Jerusalengo alabai,
Jesus justuaren barcatasunas
Negar eguiten ceudenai.
Jerusalengo alabac arren
Ez eguin negar nigatic,
Bacarric negar eguin zazute

Ceroc eta semeac gatic.
   Adar berdeac eldutzen badu
Su batec onen gogotic,
Cer eguingo dun iguerrarequin
Conciderátu bertatic.
   Ni izanic inocente bat
Aitac ez badit barcatzen,
Pecatariaz cer izango dan
Asi zaitezte pensatzen.
   Jesus justuac apenaz cituen
Hitz oyec autic atera,
Esan cioten itzuli nai dec
Mundua engañatzera.
   Borrero ayec asi ciraden
Arrabiaturic golpeca,
Erorico da dudaric gabe
Guztiz daramate lasterca.
   Guri ere eracus zaguzu
Alaba ayei becela,

Gueren culpaz negar eguiten
Galduac guera bestela
*Cer izango da etc.*



## BEDERATZIGARREN ESTACIOA.

Bederatzigarren estacioan
Biciro lastimaturic,
Consideratu nola daucagun
Jesus guc ofendituric.
Pauso onetan gure jabea
Calvarioco mendian.
Erori zan odol usturic

Irugarrengo aldian.

Auzbez lurra jo zuen eta
Gurutzea espaldetan,
Muguitutzeco bildurrac dago
Miñ artzen dulaco llaguetan.

Erremedioric etzuen eta
Cebillelaric jequitzen,
Llaga guztiac berrituricañ
Nun berriz dan erortzen.

Pecataria luzatu gabe
Uci zayozu bertatic,
Nai diozula benaz lagundu
Libratzen gurutze petic.

Borrero ayec asi citzaizcan
Deica arrabiaturic,
Il bear dec eta jun adi agudo
Etzeoc libertaderic.

Gurutzeari eldu citzayon
Simon biciro gogotic,

Deseoarequin libratu zuen
Gurutzearen azpitic.
Jeiqui becela ichatziritican
Gurutzeari amorez,
Gu libratzeco desoaquin
Etzan oroitzen dolorez.
*Cer izango da etc.*



AMARGARREN ESTACIOA.

Amargarren estacioan
Dolorez urruquituric,
Consideratu nola daucagun

Jesus guc afligituric.
Allegaturic Calvariora
Gurutzea du utzitzen,
Espera dago borrero ayec
Cer moduz zaízcan asitzen.
Lendabicico principioa
Ongui lastimagarria,
Vaso batian eman diote
Beazunezco edaria.
Obedituric gustatu eta
Itzultzen dic esanaz,
Sufritu nai det valorearequin
Zeratu bague edanaz.
Desafioca quentzen diote
Partitutzeco janciac,
Larrugorriyan Jesus lotzas ta
Oni beguira guztiac.
Borreroaquiu escalleretan
Igotzen orain da asi,

Deitu zayozu pecataria
Nora dijuan Jesusi.
Lau milla eun eta laroguei
Eta emeretzi urtean
Ichiric ceuden etzan sartutzen
Iñor Ceruco atean,
Betico bada iriquitzera
Dijua orain guretzat.
Bere bicia usten duela
Guc eguindaco zorrentzat.
¡O amorio pare gabia!
¡O pagu valerosua!
Beguira arren pecataria
Eguin zayozu casua.
Igo zanean gurutzeari
Eldutzen cion lastanca,
Cein amorio aundia cigun
Ecin diteque esplica.
*Cer izango da etc.*



## AMAICAGARREN ESTACIOA.

Amaicagarren estacioan
Dago gueyen penaturic,
Consideratu pecatariac
Degula onela jarri.
Icaratzen naiz nere cristauac
Esplicatzea aoaz,
Iru borrero Jesus biciric
Iltzez jostera dijuaz.
Cruelac dira martilluaquin
Eman dituzten golpeac,

Barrenatzeco dolore ayec
Ere ez dira obeac.
Biciro cruel josiric dago
Amabitaco puntuan,
Juduen Erregue zala
Escribituric buruan.
Borrero ayec jechi dira ta
Beguira Ama Jesusi,
Iñola ere ote dion
Movimenturic icusi.
Jesus humillac paratzen ditu
Amarengana beguiac,
Ta lance onetan eritu dute
Judio ayen arriac.
Ama Semeac onela eta
Juduac berriz danzatzen,
Arren ote da orrelacoric
Orain munduan pasatzen,
Estu onetan asi zan Jesus

Bere Aitari esaten,
Etsai oyei barca, ez dute bada
Cer eguin duten pensatzen.
Chit odol asco cijoaquion
Ta etzan escatzen aspertzen,
Odol oyec Aita icusi eta
Arren ez du barcatzen.
Nola etsayai barcatutzea
Dan señaleric onena
Argatic hitz au esaten dio
Gurutze onetan lenena.
*Cer izango da etc,*



## AMABIGARREN ESTACIOA.

Amabigarren estacioan
Asnasa ya faltaturic,
Consideratu nola daucagun
Jesus guc ofendituric.
Nai badezu escuico lapurrac
Cer asan cion jaquin,
Belarri oyec para itzatzu
Atencioaz nerequin.
Jesus justua dijuanean
Emendic bere Reinura,

Beardu nizaz oroitu
Nuan ni ere Cerura.
Jesusec dio lapur on oni
Berealà eranzuten,
Paradisuan egongo cera
Gaur nerequin gozatzen.
Gogor cegoan ezquerrecoa
Blasfematutzen Jesusi,
Infernuetan argatic dago
Ta an bearco du egosi.
Orra cer diferentea zan
Lapur oyen suertea,
Guc ere escogi dezagun
Edo bata edo bestea.
Gurutzeari Jesus josita
Ordu erdi baten buruan,
Eguzquia illundu zan ta
Icarac ciran munduan.
Orduan Juduac asi ciraden

Cuidatzen beren buruaz,
Ama dezagun descuido gabe
Semeari urbilduaz.
Ecusirican Ama maitea
Jesusec bere oñetan,
Irugarren hitza esaten dio
Negarrez modu onetan.
Andrea juan or dago eta
Ar zazu cere Semetzat,
Juani berriz esaten dio
Arzazu ori Amatzat.
Hitzic gueyago etzuen eguin
Bi ordu ta gueyagoan,
Ama Semeac cer ote ceuquen
Dembora onetan gogoan?
Deitzen dio bere Aitari
Iruretaco puntuan,
Nolatan Aita utzitzen nazu
Onen agoni estuan?

Jesus onaren lance onetaco
Beguico odol malcoac,
Icusi itzatzu pecataria
Bada daude alacuac.
Bostgarren hitza esaten digu
Daducala egarria,
Cañaberan igo cioten
Ospiñezco edaria.
Seigarren hitza ateratzen du
Ongui amorez betea,
Aita bada orra cumplitu
Berorren vorondatea.
Zazpigarrena eta azquenecoa
Aitari dio esaten,
Zure escuetan nere anima
Jauna det encomendatzen.
Deadarrez hitz au esan da
Iltzen da Jesus justua,
Norc esan lezaque lance onetan

Lurrac artu zuan sustua.
*Cer izango da da etc.*



## AMAIRUGARREN ESTACIOA.

Amairugarren estacioan
Lagun zayozu penetan,
Amari bada Semea il da
Dago beraren oñetan.
Jesus justua il da bereala
Aguertu zan eguzquia,

Icara aundiac emanaz berriz
Partitzen zan lur guztia.
Sepulturac eta arriac
Zartaca ciran aucitzen,
Il da ceuden gorputz uztelac
Biciric ciran jequitzen.
Milagro oyec icusi eta
Guardiac due esaten,
Jaungoicoaren Semea zan au
Cer otezagu pasatzen?
Asco milagro icusi ciran
Guztiz icaragarriac,
Baña Amac Semearengan
Ceduzcan bere beguiac.
Soldadu bat erdi ichua
Juan citzayon Jesusi,
Il baño len ote cioscan
Bere zancuac icusi.
Arrec nai zuen baño lenago

Zuenean illic topatu,
Bere costilla sagradutican
Zuan lanzaquin pasatu.
Lanzadarequin atera ciran
Odola ta ur garbiac,
Guztiz ederqui idiqui cituan
Soldadu arren beguiac.
Longinos zuan icena eta
Eguiñic penitencia,
Jesusec bere glorian dauca
Chit gusto aundiz jancia.
José eta Nicodemus ciran
Carguan distinguituac,
Jesus justuen favore ceuden
Lendanic declaratuac.
Jesus justua enterratzeco
Escaturic licencia,
Esan cioten artzen zutela
Beren gain costu gucia.

Pilatosen licencia
Bereala conseguituric,
Ascatu zuten gorputz santua
Amari humillaturic.
Ama tristeac escatzen cioten
Bere Semea negarrez,
Bildur ciraden eman ezquero
Ill cedin bertan dolorez.
Ez bacioten berriz ematen
Zan crueldade aundia.
Norc lezaque guizon justu oen
Dolorezco icerdia.
Obedituric para cioten
Bere besoen erdian,
Utzi nai ez ta iduqui zuan
Cembait dembora aundian.
*Cer izango da etc.*



## AMALAUGARREN ESTACIOA.

Amalaugarren estacioan
Betetzeco ondasunaz,
Norc ez du arren sentimentua
Amaren bacartasunaz.
Nola baratzan eguin baizuen
Gure aitac pecatua,
Baratzatican asi ere zan
Cristoren pasio santua.
Joseen baratzan izan ere zan

Gorputza enterratua,
Gueldítu cedin pecatu ura
Entero desterratua.

Calvariotic urbil cegoan
Joseen baratzan arria,
Arri onetan trabajaturic
Obi bat ceucan berria.

San Juan Evangelistac eta
Nicodemus Joserequin,
Calvariotic ecarri zuten
Gorputz santua berequin.

Arri gañean paraturican
Maindire berri garbian,
Uquenduaquin untatu zuten
Veneracio aundian.

Bilduric ongui maindiriaquin
Sarturic obi oncan,
Loza zabal bat para cioten
Obequi cegon artean,

Semeric gabe Ama bacarric
Nola otezan gueldilu,
Pauso eguiten asiagatic
Iñola ecin zan baliatu.
Enterratu ta bigamonean
Bildur ciraden Juduac,
Sepulturatic ostu cesaten
Gorputz au Apostoluac.
Pilatosi joan citzaizcan
Bildurrez suplicatzera,
Soldadu onac bial citzala
Sepultura cuidatzera.
Uts oguin gabe Pilatos orrec
Cumplitu citzan ordenac,
Esan cioten artu citzela
Arquitzen ciran onenac.
*Cer izango da etc.*



AMABOSTGARREN ESTACIOA.

Amabostgarren estacioan
Dezagun Jesus hour atu,
Infernuetan citualaco
Milagro asco obratu.
Il da bereala jechi zan bada

Abrahanen seno artara,
Bere esperanzan ceuden animac
Laster cituan atera.
Libratutzeco noticiaquin
Jechi ciñaden orduan.
Cer consuelo ta novedade
Arren causatu cenduan?
Norc lezaque esan infernucoac
Nola ciraden arritu,
Gurequin ayen conciertuan
Cenduanean urratu.
Piztu ciñaden illen artetic
Iru garren egunean,
Aguertu ciñan Magdalenari
Arentzat zori onean.
Guardiac berriz cinduenean
Resucitatzen icusi,
Ecin zutequen nai izan arren
Abiatu iñola iguesi.

Bereganlzeco artua gatic
Diruac juduetatic
Guezurric eciñ asmatu eta
Aitortzen zuten bertatic.
Egun batetic bestera au da
Juduen diferencia,
Ostiralean becela orain
Guezurrez eciñ jancia.
Berroguei garren egnnean
Igo ciñaden Cerura,
Berriz cerade etortzecoa.
Gu juzgatzera mundura.
Ceru altuco eguzquiac
Illargui ta izarraquin,
Ezagutzera emango dezu
Zatocela colerarequin.
Nun da posible esplicatzea
Lurraren sentimentuac,
Cimenduac faltatu eta

Ondatzen mendi altuac.
Ciudadeac eta erriac
Aberats eta pobreac,
Autzetan laster biurtuco ditu
Erorico dan sufreac.
Mundu guztian adituco da
Trompetaren soñu illuna,
Jaiqui zaitezte contuetara
Orain da nere eguna.
¡O justuen consueloa
Condenatuen negarra,
Escusa bague bere gorputza
Bacoitzac artu bearra!
Aguertuco du bai liburu bat
Guezurric batere gabea,
Contu escatzen asico zagu
Coleran gure jabea.
Errespuesta emango degu
Bacoitzac beren contuan,

Consideratu descuido gabe
Gauden artean munduan.
Egun artan egon gaitecen
Emen gaudenac gozatzen,
Ez Jauna utzi pecatariai
Pauso eder auec astutzen.
Anima asco sartu ditugu
Ceruan pauso auequin,
Deseoz gaude gu ecusteco
Gloria artan berequin.
Saya gaitecen Ceruan sartzera
Arquitzen gueranac emen,
Obra onetan empleatzea
Gracia digula Amen.
*Cer izango da etc.*

# JESU-CRISTOC BERE

## PASIO SANTUAN ICUSI CITUEN

## *nequeen berri labur bat.*

Jesu-Cristo gure Jaunari eman ciscaten bere arpegui ederrean eun da oguei masalleco.

*Guztiac eranzungo dute.*

Alabatua izan bedi Jauna:

Eman ciscaten eun da oguei ucabillazo bañan gueyago.

℟. Alabatu etc.

Lurrera bota zuten Getsemanico Baratzatic Anasen echera bitartean zazpi bider.

Eman ciscaten eun da berroguei osticada.

Lepotic socaquin arrastaca erabilli zuten ogueita amaica bider.

Buruco ille eta bizarretatic tiratu cioten berroguei ta amabi bider.

Azotatzen ari cirala jarri zan ya iltzeco zorian.

Eman ciscaten bost milla eun da berroguei azote icaragarriac,

Azotatu zuten borreroac ciran sei

Ain firme estu zuten colunan, estandatu citzaizcan besoac eta iššuri zuan odol asco.

Buruan eguin ciscan aranzazco coroac iruroguei ta amabi llaga aundiac.

Gurutzearequin erori zan iru bider.

Iruroguei ta amairu bider chistuz beteѕcioten arpeguia.

Egon zan chit afligitua eta iltzeco zorian iruroguei ta amabider.

Gorputz sagraduco ezur asco, çeuzcan beren toquitic atereac.

Gorputz Sagradua ceucan guztia llaga bat eguiñic, parte, sanoric gabe, eta araguiac ain puscatuac, ezurrac agueri cituala.

Iſsuri cituan eun da emezortzi milla berreun da bost odol tanto.

Gurutzean josi zutenean ain desfiguratua ceucan arpeguia, eciñ ezagutu citequean.

Santa Brigidac, lib. 7, cap 15. eta beste rebelacio piadoso sinistagarriac.